

- BALIO PROPOSAMENA:

Gure bezero zuzenak, supermerkatuak dira gehienbat, baina baditugu beste bezero batzuk zeharkakoak direnak: bizkar arazoak dituen edozein pertsonak, eta nagusiki pertsona nagusiak.

Gure zesta jasotzaileak supermerkatuetako erosketa txikitako zesten erabilera deserosoari buelta bat emango dio. Hau da, erosketak egitera joaten garenean ez gara inoiz gehiago



makurtu behar izango produktuak saskian sartu eta ateratzeko orduan. Saskiek igotzen eta jaisten den plaka bat izango dute eta horri esker, erosketak egitea gauza erraza izango da eta edozein pertsona gai izango da, laguntzarik behar izan gabe erosketak modu lasai eta eroso batean egitera.

Berrikuntza honekin pertsona autonomoak sentituko dira, hots, haiek bakarrik joan ahal izango dira erosketak egitera eta ez dira beste pertsona baten menpe egongo.

Aipatu dugun bezala, ez dago antzeko asmakizunak merkatuan, eta hori oso puntu ona da guretzat. Pertsona helduentzat berria izango da eta ondorioz, merkaturatuz gero, lehenak izango dira erabiltzen.

Supermerkatuek asmakizun hau erosteko aukera handia dago, beraien establezimenduak balio gehigarri bat eskainiko baitie beraien bezeroei eta horrek bezeroen fidelizazioa ekarriko die. Esan dugun bezala, ez bakarrik agureak, bizkar arazoak duen ororentzat erabiltzeko egokia izango da, erosteko prozesua erraztuz.

Gure asmakizunak osasun arriskuak murriztea laguntzen du, eta ondorioz, supermerkatuek izan dezaketen bezero galerari aurre egiten dio (hau da, makurtzen eta altxatzen ibili ezin den jendeak aukera izango du erosketan egiten jarraitzeko).

Saski hau diseinatzeko orduan enpresa bakoitzak daukan itxurari egokituko gara. Honekin esan nahi duguna zera da, enpresaren batek zesta gorria nahi badu, bere markaren koloreak direlako, otzarak gorriz egingo ditugu, eta beste batek urdina izatea erabakitzen badu urdinez egiteko aukera izango dute.

Bakoitzak nahi duena bezalakoa izateko aukera izango du. Eta ez bakarrik kolorea, saskiaren neurriak haien esku ere egongo dira. Tamaina 70x40cm-koa izango da. Guzti honekin esan nahi duguna da diseinua ez dagoela zehaztuta eta bakoitza aukera izango duela beraien zesta gustura egiteko, egia da tamaina zehaztuta egongo dela, baina kolorea bezeroek aukeratu dezakete.

Prezioari dagokienez, zesta jasotzaileak egiteko, hainbat material garesti erabili beharko ditugu, material birziklatuak erabiliko ditugulako. Orduan nahiz eta material birziklatuak erabili, ez da ez garestia ez merkea izango.

Reciclaje Integral De Plasticos Si enpresak plastikoa bidaliko digute, haiek oso kontzienteak dira gure planetarekin eta plastiko xaflak egiten dituzte, plastikoa berrerabiliz egiten dituzte, horregatik gure saskiekin ez dugu kontaminatzen. Hori uste dugu puntu positibo bat dela, gure bezeroek gainontzeko enpresetatik ezberdindu ahalko dira. Orokorrean supermerkatu guztiek ez dituzte saski birziklatuak. Beraz, supermerkatuen bezeroek haien denda aukeratuko dute abantailak ematen dizkietelako erosketan egiteko momentuan eta gainera, ez dute kutsatuko.